

PRENTSA-OHARRA

1.300dik gora lagunek parte hartuko dute aurtengo sanferminetako Kulturen kalejiran, eta hala bikoiztuko da parte hartzen duten entitateen kopurua, 67 elkarte bilduta

Desfilea Udaletxe plazatik abiatuko da, 18:00etan, uztailaren 14an, partaideek beren jatorrizko kulturetako jantzi tipikoak jantzita

1.300dik gora lagunek parte hartuko dute aurtengo sanferminetako Kulturen kalejiran, zeinean bikoiztu baita parte hartzen duten entitateen kopurua, eta guztira jatorri eta kultura desberdinetako 67 elkarte bilduko baitira. Ondo ondoko bigarren urtez, kalejira erraldoi bat antolatu da uztailaren 14rako, festei agur esate aldera. Udaleko Herritarren Partaidetzako eta Gizarte Ahalduntzeko Alorrak eta Gizarte Ekintzako Alorrak antolatu dute, parte hartuko duten entitateekin elkarlanean, Kulturen kalejira eta horren ikuskizuna, *Aniztasuna kolore bizian*, eta Udaletxe plazatik abiatuko da, 18:00etan, Iruñeko kaleetan barna ibiltzeko. Desfilean parte hartuko dute adin orotako lagunek: Iruñeko hainbat komunitateko kideak –Peru, Senegal, Bolivia, Venezuela, Argentina, Kolonia, Nikaragua, Bulgaria, Ekuador, Ukraina, Ijitoen Komunitatea, Mali eta Nigeria– eta kultur aniztasunaren esparruan lan egiten duten zenbait entitate.

Jardueraren xehetasun guztiak azaldu dituzte gaurko prentsaurrekoan Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkari Edurne Eguinok, Herritarren Partaidetzako eta Gizarte Ahalduntzeko Alorreko zuzendari Ana Gilek eta Kultur Aniztasunaren Foroan parte hartu eta desfilean izango diren entitate hauetako ordezkariak: SEI elkarte, Balgarskite Kipri elkarte bulgariarra eta Ekuadorreko Sumak-Kawsay dantza-taldea. Gaurko ekitaldia nolabaiteko atarikoa izan da, kalejiran ikusi ahalko den kolore eta aniztasunaren erakusle, bertaratutako askok egun horretan jantziko dituzten arropak eramaten baitzituzten. Uztailaren 14ko kalejirako partaideek haien jatorrizko kulturetako jantziak edo sanferminetako ohiko arropa zuri-gorriak jantziko dituzte.

Ekimen partekatua

Ekimen honen helburuak dira, besteak beste, honako hauek: programazio herrikoi eta partekatua egitea, zeinean herritarrek ikusle ez ezik beren jarduera propioen eragile baitira; hiriko kultur aniztasuna islatzea, bertan dauden kolektibo eta kultura desberdinen bitartez; eta pertsona guztien eskubide-berdintasuna defendatzea, jatorria edozein delarik ere. Era berean, asmoa da hiriko espazioak irekitzea Iruñean dagoen kultur aniztasuna gizarteratzeko eta





ezagutzeko; diskriminazio, arrazakeria eta xenofobiaren aurka diharduten kolektiboetan aritzen direnen parte-hartzea sustatzea, eta aniztasuna azpimarratzea hiriko festetan. Aurkezpenean, udal-ordezkariek nabarmendu du erakundearen eta kultur aniztasunaren kolektibo protagonisten elkarlana, zenbait hilabetetan egindako bileren bidez mamitu dena ekimen hau elkarrekin diseinatzeko.

Aniztasuna kolore bizian desfilea Udaletxe plazan hasiko da, eta ibilbide honi jarraituko dio: Mercaderes eta Txapitela kaleak; Gazteluko plaza; Sarasate Pasealekua; Comedias, Pozo Blanco eta Zapatería kaleak; Kontseiluko eta San Frantzisko plazak. Bertara iritsita ordu erdiko dantza-erakustaldia egongo da, hainbat kolektiboren eskutik. Ondoren, Hilarión Eslava, Jarauta, San Lorentzo eta Kale Nagusitik igaroko da, eta Udaletxe plazan bukatuko.

Musika eta gastronomia bat eginik

Ibilbide amaieran Paris 365 elkarteak prestatuko mazedoniaren 1.000 anoa banatuko dira partaideen artean bai eta festarekin bat egin dutenen artean ere. Ekitaldia sustatu duten kolektibo eta entitateek fruta-mazedonia aukeratu dute aurten ere aniztasunean elkarrekin bizitzeko errespetuzko ereduaren sinbolo gastronomiko gisa, halako aniztasun batena non herritarrek, elkar hartuta, ekarpenak egiten dituzten eta nork bere kultur identitateari zein jiteari eusten dion, “plater zaporetsua partekatuz, aniztasuna kolore bizian”. Eta, gainera, indar osoz bizitako sanferminetan bapo jan eta gero “ez dagoelako ezer hoberik postre zaporetsu eta freskagarri bat baino, sanferminei amaiera gastronomikoa emateko, Gaixoa ni! abestu aurretik”.

Kulturen kalejirak bigarren urtez lotuko ditu, festa-ekitaldi garrantzitsu batean, sanferminen identitate-zeinurik indartsu eta erakargarrienetako bi: musika eta dantza ibiltaria eta espazio publikoan elkarrekin jatea. Festa-ekitaldi gastronomiko honen bitartez erakutsi nahi da sanferminak festa kosmopolitak eta unibertsalak direla, eta hala dela, ez bakarrik mundu osoko bisitariak etortzen direlako, baizik eta gure hiria jada kosmopolita eta unibertsala delako, biztanleen jatorri- eta kultura-aniztasuna direla medio.

KULTUREN KALEJIRA. UZTAILAK 14. UDALETXE PLAZA. 18:00

- AEK
- Afolbo
- Africa Unida
- Al Baream
- Alpargatika
- America India
- Aproz
- Así Es Bolivia





- Askapena
- Asmena
- Mendebaldeko Saharako elkarte
- Senegaleko elkarte
- Cultura Viva Pasos De Fuego elkarte
- Salay Bolivia kultur elkarteko Nafarroako filiala
- Rosa De Bulgaria elkarte
- Unidos elkarte
- Asocolon
- Asvena
- Colorit dantza-taldea
- Drummens batukada
- Niawara batukada
- Burubetlz Konpartsa
- Argentina Etxea
- Burlatako Gurutze Gorria
- Venezuela dantzak
- EH11 Kolore
- Trikitixa Eskola
- Etiopia
- Etxabakoitz Bizirik
- Fain
- Floren fanfarrea
- Flor De África
- Diablada Urus senide-elkarte artistiko-kulturala
- Salay Cochabamba senide-elkarte artistiko-kulturala
- Gaz Kaló - Sabicas etxea
- Amapolas taldea
- Rebeldes kultur taldea
- Balgarskite Kipri dantza-taldea
- Bulgariako dantza tipikoen Pirina dantza-taldea





- Sumak-Kawsay dantza-taldea
- Corazón Boliviano folklore-taldea
- Guinea Konakri
- Herencia Latina
- Herri Sanferminak
- Integración Sin Fronteras
- Iruñeko Txistulariak
- Kullaguada
- Llajuas
- Mama Africa
- Medicus Mundi
- Morenada De Las Andes
- Mujeres Del Maiz
- Munata Folclore
- Nabda
- Nosotras Las Mujeres
- Obfu Bg
- Obfu Obi
- Orfey Bg Bulgaria
- Perú Arte
- Salay Sacaba
- Salseando San Jorge
- Sei
- SOS Arrazakeria
- Stara Planina
- Sumaj Sonqo
- Tobas Ballet Atipax
- Unión Familiar

Iruñean, 2018ko ekainaren 27an

